

GIB PROBA AZKARRA

+ ZURE BOTIKAN

Arrisku-praktikarik izan baduzu, EZ ITXARON EGIZU PROBA



LG NA-22/49-2023


Zer da GIBaren proba azkarra?

Birusaren presentzia detektatzeko duen proba bat da, edo giza immunoeskasiaren birusaren (GIB) aurkako antigorputzena.

Emaitza 20 minututan lortzen da, gutxi gorabehera.

Zertan datza proba?

Probak odol-tanta batzuk erabiltzen ditu, hatzean ziztada txiki bat eginez lortuak.



Odol-lagina zerranda erreaktibo baten gainean jartzen da, birusa edo haren antigorputzak detektatuko dituzten substantziekin bustita.

20 minutu igaro ondoren, zerrendak emaitza positiboa edo negatiboa erakutsiko du.



Zer esan nahi du emaitza negatiboak?



Negatiboa izateak esan nahi du **ez dagoela GIB infekziorik**, hau da, birusa ez dago organismoan.

Negatibo hori guztiz fidagarria izan dadin, gutxienez 3 hilabete igaro behar dira azken arrisku-praktikatik (probaren leihio-aldia): denbora hori igarota, infektatutako pertsonen % 99k positibo ematen dute proban, eta, beraz, emaitza negatibo batek, une horretan, infekzioa baztertzeko du.

Proba 3 hilabete igaro baino lehen egin bada, errepikatu egin beharko da denbora hori igaro ondoren.



Zer esan nahi du emaitza positibo batek?

Positibo batek esan nahi du **oso litekeena dela GIB infekzioa egotea**, baina beharrezkoa da emaitza analisi espezifikoago baten bidez berrestea.

Zer da GIBa?

Immunitate-sistema poliki-poliki suntsitzen duen birusa da, defentsak gutxitzen dituena eta infekzio, tumore eta bestelako gaixotasun jakin batzuk agertzea errazten duena.

HIESaz hitz egiten da GIBaren infekzioaren egoera aurreratua zehazteko.

Nola transmititzen da?

Odolaren, semenaren, baginako jariakinen eta infektatutako pertsonen amaren esnearen bidez.

Infekzioa gertatzeko, birusa odolaren edo mukosen bidez sartu behar da organismoan (ahoaoren barne-estaldura, bagina, zakila eta ondostea). Uzkiko sarketa da arrisku handiena duena, eta ondoren baginakoa eta ahoko sexua daude.

Nola prebenitzen da?

Prebentzio-neurriak aplikatzea, hala nola preserbatiboak eta/edo latexezko

eskuoihalak erabiltzea arriskuko sexu-praktiketan (uzkiko koitua, baginakoa eta/edo ahokoa), xiringak eta orratzak, bizar orriak eta hortzetako eskuilak partekatzea saihestuz.

Nola detektatzen da GIBa?

GIBaren proba GIBaren infekzioa detektatzeko berariazko analisi bat da, sare publikoko edo laborategi pribatueta osasun-zentroak egiten dena.

GIBa detektatzeko proba azkarrak ere badaude, eta horien emaitza 20 minututan lortzen da. GKEek (Hiesaren aurkako Herritarren Batzordea edo SARE) eta farmaziek eskaintzen dute zerbitzu hori.

Zergatik da ona GIB proba egitea?

GIBa duten pertsona askok ez dute sintomarik.

Arrisku-praktikak izan badituzu, **balizko positibo bat lehenbailehen ezagutuz aukera emango dizu osasun-jarraipenera sartzeko eta eskuragarri dauden tratamenduetako bat jasotzeko**, infekzioa sendatzea lortzen ez badute ere, GIBa duten pertsonen itxaropena eta bizi-kalitatea areagotzen baitute.

Galdetu zure botikan

Konfiantza osoz...



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

